

Paz y Reconciliación

TXILLARDEGI



KANTALDIE-TAN

bezala: «beste bat! beste bat!»... Bai, jaun-andereok: Cristina Cuesta-ren alaba maiteari, ahizpa bizi bat jaito zaito. Beraren hitzetan aurkeztokan: «es una hermana menor de 'Gesto por la Paz'».

Gauzak garbi.

«La utilización de la violencia —esan du ahizpa bermak— no sirve para nada». Frantsismoak, adibidez, 40 urte luzez dena kontrolaturik ere, ez zuen ezertxo lortu. Kuwait-en berreskurapen armatua, bide beretik, porrot hutsa izan da; eta Bush mahai baten azpian sartuta bizi da gerotik. Stalin-ek, Atatürk-ek, Hitler-ek, Ben Bella-k, ez zuten ezertxo ere lortu. Baina Hapsobergo-ko Cristinak esan badu... Kondaira, ezaguna denez, platerik hautsi gabe egin da beti.

Herri honek Quebec-eko herriak bezalaxe, Estonia-koak bezalaxe, Kroazia-koak bezalaxe, bere buruaren jabe izateko eskubidea du. Goardia Zibilak, Ertzantzak, Mifioneriak, Amedo-ren lagunek, horixe eskatzen dute aspaldidanik. Baina H.B.ko 'violento' ek galarazten dute. Eta horixe dago kokat! Bulego publikoetan, adibidez, norik debekatzeko erabilpena? Kontratazio espaldidanik euskaraz egiten direnez gero, erdararen erabilpena 'erderomano' en erua besterik ez da. Hezkuntza Saiala eta Unibertsitateak, bereziki, euskaritzale sutsuen eskuetan daude aspaldidanik. Ez ala?

«Paz significa respeto a las reglas del juego democrático» —irakurri dugu jaito berriaren baita—paperetan. Noski! Hemen, normala denez, Auto-Determinazioaren lege-aitorpenen funtsatu da dena. Bestela «cultura de la paz» famatua, «cultura del crisantemo» izango litzateke, eta «el triunfo del cementerio». Eta 'P. y R.' ak ez du hori nahi. Eta guk ere ez dugu horrelakorik nahi. Odón Elortzak ongi esan duenez: «la paz empieza con el cocido madrileño».

Sevilla

MIKEL ARAMENDI



EGUNOTAN

hizpidean den gertaera horregatik Sevillako polizia esker ona agertuko banio, haserretu egingo litzazkideak noiztitzalek eta haien/neure etxekoak

—senitatekoa dut bat—, kasotik eginda ote nagoen galdetuko lidakete lagunak eta neure printzipio bakanetako bat hutsi beharko nuke. Bidezkoa litzatekeelakoan nago, halere, neure artean.

Pasa eta gero, ia mundu guztiak ekin diu argitasunak esijitzeari, kulpanteak bilatzeari, erantzukizunak zertzeari. Oilakakarak guzti honi, ordea, sustraitiko errakuntza igertzen diot: Kanadako polizia biltzaintza funtzioa dezan eskatzen ari gara... mexikar polizia.

Polizi komententzien alegaltasuna, ilegaltasuna eta antilegaltasuna toleratu ezetik xaxatu egiten da ordea gizartetik: «Zer nahi duzue zilegi gu lasaigoko bizitzearen truke» aditzera ematen zaie, egunero. Diskrezionaltasun horren ilunbetean jada pilakatu den 'zulo beltz' mordoak sekula ez da taxu argituko, seguru; kasualitatez edo zertxobait argitu direnek erakusten dute, gainera, erregabe izatea erurririk ororen gerta daitekeela: Almeria kasukoak edo Nani lekuko. Beraz, Urtezarhar bezperako teleabestiegite lutzuzen zitazikien diskrezionaltasun 'txekeei' bizkar eman, froga faltsiaketa errazaren tentazioari muzin egin, farregarri gertatzeko arrisku gorriari gera eta gazte batzuk hiritik ostikoka botata konformatu ziren 'gure' polizia 'mexikarrei' begirunetxoa diet. Gizarteari orobat ez diodana.

EL DIARIO VASCO

Yanki bat Gasteizko gorlean

Bilbok museo ona dauka eta Euskal Herrian beste batzuk hobetzen joan daitezke. Hobe dugu guzti horiei laguntza finantzaria eskaintzea eta buruarekin antolatzea eta garai hobea-gerearako uztea erosketa galgarri hori.(...)

Daukaguna hobetuz joatea eta hemen etorkizun artistikoaren alde lan egiten dutenei aukerak ematea, gauza publikoaren gobernu onarekin hobeto datorren politika da. Ez hain nabarmena, hori bai.(...)

Ez dut ondo ulertzen, gainera, birmoldaketa industrialia Euskaditik kanpo konpontzea eskatzen duen taldeak berak nola eduki ditzakeen gibelak, horrelako diru kopuruak alferriakoa den zerbaitean hondatzeko eta gainera askoz komenigarriagoa dena atzeratu edo galerazi egingo duenean: euskal sortzaile artistikotako lagundu edo bultzatzea. Baina kasu askotan ikusi dut, «geurea» defendatut beharra dagoela esateko erakusten den fatxada tinko hori, pitzatu edo erori egiten dela, EEBBetik datorrena edo nazio horretan gogokoa edo satelitea dena

HEMEROTEKA



...eta orduan zu alkatza zara, eta nik diru beltzez erosten zaitut, eta zuk erakitzun uzten didazu, eta niri ahaztu egiten zait zure alderdiari kreditua ordainetzea...

RICARDO & NACHO / EL MUNDO

sartzen uzteko. Zein da auzi deitoragari horren arazoia?

ANGEL GARCIA RONDA

DEIA

Guztiak diskriminaturik

Kareaga eta bere lagunek «nazio-

tasuna edota beligerantzia ikusita, lotsagarri bihurtzeko arriskua daukela esan liteke, gainera.

JOSE FELIX AZURMENDI

EL MUNDO

Uraren balioa

Ezberdintasun hori konpondu egingo da, kendu egingo digute, Europaren batasun hori konpondu egingo da. Europaren batasun politiko eta ekonomikoa aurrera eramango den neurrian, eta biziki nabarmenduko oraingo monetak (pezeta, lira, frankoak, markoa, etab.) baztertu eta monetari unitate bakarra, ecu delakoa edukiko dugunean.

Aldaketak, ondo burutu ahal izateko, astiro egin behar dira, neurritz eta zentzuz. Prezioenak ere bai.

Uraren prezioa igon egin nahi dute? Ondo. Nik pozik ordainduko nuke ura garestiagoa, trukean dentistaren faktura eta optikarena instituzio ofizialek ordainduko balizkideate, Europako beste Estatu batzuetan gertatzen den bezala.

Europarra izan nahit du, baina ez uraren arazoan bakarrik. Denean. XABIER GEREÑO

ZUZENDARIARI

Ez gara ezberdinak

Azken bolada honetan, lanari buruz kaleraturiko albisteak ez dira batera onak. Azenortri buruzko erabakiak gudan eragin zuzena izango du. Azenortentzako planek aborokin-kopuru handia behatzen dute, hau da, lanpostu-suntsidura handiagoa. Horixe bera da datozen sei hilabeteorako aurkeztu nahi duten espedientearen bidez lortuko dena.

Mobilizazio horiei dago-kienez ezberdintasun batzuk izan arren, gure ustez asanbladetan langileok erabaki egin behar bait ditugu, eta ez sindikatuetako zuzendaritzek, hala nola, mobilizazioek izan behar duten helburua: aborokin laboralen errefusaketa; ba, berri horiek irakurri ondoren, zailagoa gertatzen zaigu ulertzea sindikatu batuzen jarrera, zeren eta Azenor edo Asturiasen espedienteak errefusatzeari gain, mobilizazioak deitzen dituzten artean, PESAn, ordea, aurkezten zaien guztia sinatzen dute. Ezberdinak eta gara? Beste langileentzat txarra dena guretzat ona ote da? Begi bistan dago ezetz.

Gure iritzi apalean, Bilbo, Gasteiz, Barakaldo, Laudio, Hernani, eta abarretan emandako bideari ekin beharko genioke: espedientearen aurkako mobilizazioak eta egungo egoerari aurre egingo dion mobilizazio orokorraren preskaketa. Asko kezkatzen gaitu

'Patricio' gauza bera ez egiteak.

Egungo unean, elkartasunezina, lanpostuan irauteko edo izateko dena balio duela pentsatzeak eragin handia dute gudan, Ekonomatoaren inguruan eman diren kasuak ematen direlarik, non batzuk baliatu diren euren onurako zuten informazioaz, beren aldiandikoen kontratazioan gertatu zen bezala. Honelako gauzak berriro ez daitezten eman, ezinbestekoa da ustea langile-batzorde zein langileon bizkarrean egiten dituzten bilerak. Planitlan gaudenak, afiliatuak zein ez afiliatuak, informatuta egoteko eskubidea dugu; egun, gure etorkizuna hari batetik helduta dagoenean, asanbladak egitea proposatzen dugu eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izateko.

ESK-CUIS

Legazpi (Gipuzkoa)

Goierri 2005 planak interes ezkutuak ditu

Goierriren bizitzan 'Fundazioaren' eskutik, gaurtik hasi eta 2005. urtera arte gure eskualeak nondik nora jo behar duen antolaketak edo ez-tud bat egiteko saiakera bituzten ari da.

Honela ikusita, objektiboki, lau haizetara aldarrika dezakegu iniziatiba onargarri eta gomendagarria dela, baina antzemanean ditugun interes ezkutuak, zenbait funtsezko za-

lantza argitaratzera behartzen gaituzte.

1.- Ez da oso argi ikusten, zertan oinarriturik, Prospektiker enpresa kontratatu den, inongo lehiaketa publikorik, kontsulta edo antzekorik gabe. Honelako lkerlan serio bat eta hainbeste jokatzen dugun honetarako, enpresa ez ezagun bat kontratatu da, baita zertxobait jakitun direnentzako ere, denboran kontrastatu ez den, gutxi argitu den eta eztabaidagarri den sendotasun analitiko batean oinarrituriko metodologiak lan egiten duena.

2.- Bestalde, zein edo zeintzuk dira Prospektikerren faktura ordaindu behar dutenak? eta zenbat kosta behar du? Gai honen aurrean 'Fundazioaren' aldeak isilatasuna izan da menperatu duen joera. Mota honetako lan baten kosta, erabakia hartu aurretik behar bezala kuantifikaturik egon beharko luke eta beste enpresa batzuen kostuekin kontrastatu.

3.- Plan guzti honen atzekaldean 'Fundazioaren' helburu garbi batzuk lantzen ari dira, zeinak Prospektiker bultzatzen duen, talde ezberdinen aurrelaketak zenbait emaitza aurkeztera, non ikusten diren Fundazioaren interes zehatzetan oinarritutako emaitza aurre-finkatuak, eta batez ere Goierriko Langintza Eskolako etorkizunari dago-kionean.

PATXI AIERBE

MARTIN JAUREGI

Goierri (Gipuzkoa)

PERTSONAIA



Athletic, Reala Osasuna

Euskal taldeak bihurtu dira hondamenaren esklabo arerioa opariz jazen hor hiru errege mago bigarren maila daukate ia UEFA baino gertuago afizioa halere dabil inoiz baino gustoago txarrean baina oraindik ere norgehiagoka badago.

IGOR ELORZA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIAN ETXEHARRRETA, INAKI URIA
Publizitateak: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadena 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11